

# Getxo >MEETING<



## Ekainak 6

### Storytelling: kontatu zure historia ahaztezina izan dadin.

Zure historia kontatzea batzuetan konplikatua da. Proiektu berri bat edo enpresa berri bat hasten duzu eta galdetu egiten dizute: zu, zertara dedikatzen zara? Batzuetan zaila izaten da hain galdera errazari erantzutea.

Horregatik saio bat eman dugu gure historia lantzerako. Aurrean daukazun pertsonarekin konektatzea oso garrantzitsua da gure mezuak arrakasta izan dezan.

Era sortzailean hasten gara, gure diskurtsoan elementu berriak sartzeko balio dezaketen sinboloak erabiliz, desberdin bihurtuz, eta beste era batzuk frogatuz.

Lantzeko interesgarriak izan daitezkeen ildo batzuei buruz mintzatuko gara:

- Pertsonaia bat sortzea. Onartu behar dugu harremanetan gaudenenean pertsonaia bat garela. Pertsonaia horrek ezaugarri desberdinak izan ditzake. Horretarako inspirazio moduan erreferenteak diren pertsonak har ditzakezu, nola komunikatzen diren, edo gustatzen zaizkizun elementuak dituztenak aukera ditzakezu. Pertsonaia horri, zeureganatzeko, zeure ezaugarri propioak batu behar dizkiozu. Bestela, oso artifiziala izango da eta agian ez duzu konektatzea lortuko.
- Ez ahaztu lotura sortzeko transmititu nahi duzun edo beste pertsonarengan sortarazi nahi duzun emozionalitatea. Azken finean xedea konfiantzazko erlazioak sortzea da.
- Edukia ere oso garrantzitsua da. Interesgarria izan daiteke baloreak aipatzea, balio-proposamenak, zure jardura edo nola iritsi zaren honaino. Derrigorrezkoa da zure produktua edo zerbitzua oso ondo ezagutzea zure alderdi sendoak azpimarratzeko eta diskurtso erakargarria eraikitzeko.

- Entzutea eta isiluneak errespetatzea.
- Beharizanak ondo ezagutzea gure diskurtsoarekin asmatzeko eta konbentzitu ahal izateko.
- Pentsatu behar da enpresa, web, antolakuntza edo erakunde baten atzean pertsonak daudela eta horiekin jardun behar duzula.
- Hizkuntza zuzena erabiltzea.
- Ez esan ezer txarrik konpententziaz edo gainerakoek egiten dutenari buruz. Finkatu zaitez zure zeure proiektuan eta zeurea defendatzean.
- Ez ahaztu soft skillak, gure balio-proposamenaren parte dira. Gure esperientziagatik eduki dauzkagun trebeziak, zeharkakoak direnak proiektu guztiekiko.

Puntu horiek landu ondoren abian jarri genituen role playing dinamika baten bidez; pertsona guztiek parte hartu genuen eszena bat antzetzuz eta feedbacka emanez gure diskurtsoa hobetzeko eta baloratzeko.

Metodologia hau praktikan jartzeak diskurtso gero eta sendoagoa lortzen, segurtasunean irabazten eta beste pertsona batzuk egiten dutenetik ikasten laguntzen ditu.

Orain ekintzari ekiteko unea da.